

LAN BATZORDE IREKIAK			
TALDEA	ONGIZATE BATZORDEA		
IRAUPENA	1.5 ordu	EGUNA	2016-09-27
GAIA	DEIALDIA		
PARTE HARTZAILEAK			
IÑAKI ETXEZARRETA	ELI ELGARRESTA	ARANTXA BIDEAIN	XABIER BARRIOLA
ENDIKA IGARZABAL	JABIER GARCIA		
ERABAKIAK			
GAIA	EKINTZAK	ARDURADURA	NOIZKO
SASIETA	<ul style="list-style-type: none"> • Aitzari zaharrekin zer egiten den argitu gabe dago. Irailean ez dute jaso eta egunak egon dira. • Bitarte horretan, bertan zeuden telebista, pintura pote... txikitu dituzte eta zabortegitik kanpora ere zabaldu. • Sasietari jarraipena egin behar zaio ea benetan esandako datetan jasotzen dute. Bandoetan zabalduko da berriro hilabete batzuetako egutegia, eta errespetatzea bultzatu behar da. • Sasietakoak etorri ziren hitzaldia ematera. Derrigorrez deitutako 6 etxeetatik 2 soilik agertu ziren. Konposta-gunea beste toki batean jarriko da, Frontoi azpiko auzoan bertan, eta ez zabor-gunean bizilagunekin adostu bezala. • Datuak: 2014ean %47 birziklatzen zen, 2015ean %44 eta aurten %60an gaude. Hobekuntza nabaria da. • Tasak errebisatuko dira, adibidez, Beheko Errotako kasua: 17 etxebizitza daude eta ez da proportzioa mantentzen etxebizitza arruntekiko. 		
FRONTOIKO ARAUAK	<p>Aldaketa batzuk proposatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kanpokorenbat jokatzeko ari bada eta herritarrenbat joaten bada 15 minutu izango dituzte kanpokoek jokoa amaitu eta herritarrei frontoia libre uzteko.--> Arau hau frontoian bertan jarri behar da • Ezingo da astean bi egunetan ordua erreserbatu, eta gehienez 2 ordu erreserbatu ahaliko dira. 		
FESTATAKO EDALONTZIAK	<ul style="list-style-type: none"> • Batzokia: 300 eman/346 itzuli • Ostatu: 300 eman/300 itzuli kajatik atera ere egin gabe • Elkarteak: 300 eman/286 itzuli • Txozna: 900 eman/253 itzuli <p>Balorazioa oso positiboa da.</p>		

<p>PANEL INFORMATIBOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Berriro hartu beharko da gai hau. • Panel elektrikoak jartzeko laguntzak omen daude. Begiratuko da. 		
<p>EUSKAL NORTASUN AGIRIA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Aukera dago herrian bertan ateratzeko. Azaro aldera egun bat jarriko da nahi dutenek atera ahal izateko. Informatuko gara. 		
<p>SALTALUTZIKO ADARRENTZAKO GUNEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sasietak eskatuta ireki zen adarrak botatzeko gune bat, Gabiriarekin mugan. Ezkioko udalari ordaintzen diote baina Gabiriako zatian botatzen dituzte. • Sasietak berak jarri du gunea eta ez omen du gehiago hori erabiliko. Jarraipena egin beharko zaio, aspalditik datorren kontua da eta. 		
<p>EUDELEN</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Edadeko jendearen inguruko ikerketa bat egin du, eta hainbat laguntza aterako omen dituzte eguneko zentroak egiteko. • Ormaiztegikoa berritu egin behar dute bestela ere, eta dinamizatzailerik bat jartzeko asmoa daukate. Gazteentzako ere jarri behar omen dute zerbait. • Xehetasun gehiago asistentia sozialak ditu eta berarekin elkartuko gara gehiago informatzeko. Laster, bilera informatibo gehiago izango dira eskualdean, eta joango gara. • Dakigunaren arabera, Gabiriari 2000€ inguruko laguntza dagokio. Zertarako litzatekeen enteratuko gara. 		

HURRENGO BILERA: AZAROAK 15, 19:00tan